AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Prestatu eta trebatzeko ikastaroak

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5414

EBAZPENA, 2011ko urriaren 21ekoa, Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendariarena, 2011-2012 ikasturteko bigarren lauhileko euskara-ikastaroetara dei egiten duena. Deialdi honetan parte hartu ahalko dute bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileek, bai IVAPekin lankidetza-hitzarmena duten herri-erakundeetako langileek.

EBATZI DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileentzako eta IVAPekin lankidetza-hitzarmena duten herri-erakundeetako langileentzako euskara-ikastaroetarako deialdia onartzea, I. eta II. eranskinetan ezarritakoaren arabera. Deialdi honek 2011-2012 ikasturteko bigarren lauhilekoa arautzen du, eta hirugarren hizkuntza-eskakizuna arteko ikastaroak eskaintzen ditu.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko urriaren 21a.

Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko zuzendaria,
MARIA ENCARNACIÓN ECHAZARRA HUGUET.

I. ERANSKINA

OINARRIAK

Lehenengoa.– Helburua.

Euskal administrazio publikoetako langileen hizkuntza-gaikuntza eragin eta bultzatzea.

Bigarrena.– Nori zuzendua.

Deialdi hau zuzenduta dago bai Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileei, bai IVAPekin lankidetza-hitzarmena duten herri erakundeetako langileei.

Euskadiko Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskara erabiltzeko normalizazio-prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren ildotik:

1.– Deialdi honetan parte hartzerik izango dute:

– Euskadiko Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta bere erakunde autonomoetako langileak.

– IVAPekin lankidetza hitzarmena sinatuta duten erakundeetako langileak, Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2005eko azaroaren 30ean eman zuen Aginduaren arabera. Agindu horren bidez, batetik, arautzen da IVAPek Euskal Autonomia Erkidegoko herri-erakundeei eskainiko dien hizkuntza-prestakuntzako zerbitzua; eta bestetik, ezartzen dira euskara-ikastaroetara doazen udal-langileak ordezkatzeko dirulaguntzen arauak (EHAA: 2005-12-19).

– Uraren Euskal Agentziako langileak eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako langileak.

2.– Deialdi honetatik kanpo geratzen dira: Hezkuntzako irakasleak, ertzainak, Justizia Administrazioko langileak eta Osakidetzako langileak.

Deialdi honetan eskaintzen den hizkuntza-prestakuntza IVAPek finantzatuko du horretarako duen aurrekontuaren bidez. Aurrekontua nahikoa ez balitz, IVAPek indarrean dagoen araudian aurreikusitako lehentasun irizpideak jarraituko ditu: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileen kasuan, Funtzio Publikoaren Sailburuordetzaren 2004ko maiatzaren 27ko Instrukzioan zehaztutako irizpideak jarraituko dira, eta IVAPekin Lankidetza Hitzarmena duten erakundeetako langileen kasuan, 2005eko azaroaren 30eko Aginduaren 3. artikuluan ezarritako irizpideak jarraituko dira.

Hirugarrena.– Arau orokorrak eta ikastaroetan parte hartzeko baldintzak.

Ondoren zerrendatutako gaiak arautzeko 2011-2012 ikasturteko deialdi nagusietako oinarriak aplikatuko dira:

- Ordu-kredituari buruzko araubidea.
- Mailaketa probak.
- Administrazioko taldeak osatzea.
- Matrikula orriaren bitartez eskolatzea.
- Eskolara joatea eta asistentzia kontrolatzea.

● Eskolan berandu hastea.

● Eskola behin betiko uztea.

● Ikastaroen aprobetxamendu irizpideak.

Aipatutakoak arautzeko, bi ebazpenok hartuko dira kontuan:

Batetik, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko langileei dagokienez, erreferentzia moduan hartuko da 2011ko apirilaren 13ko IVAPeko zuzendariaren Ebazpena, 2011-2012 ikasturteko euskara-ikastaroetara dei egiten duena (2011-05-10eko EHAA; 87. zenbakia).

Bestetik, IVAPekin lankidetza hitzarmena duten herri-erakundeetako langileei dagokienez, ordea, erreferentzia moduan hartuko da 2011ko apirilaren 4ko IVAPeko zuzendariaren Ebazpena, 2011-2012 ikasturteko euskara-ikastaroetara dei egiten duena (2011-04-29ko EHAA; 80. zenbakia).

Oraingo deialdi honetan otsailetik ekainera arteko eskaera egin ahal izango dute interesatuek, betiere baldintza hauen pean:

a) Ikastaroa urrian hasi ez duten langileek, salbuespen oso berezirik ezean, ezingo dute bi orduko ikastarorik hasi otsailean. Urrian hasi ez direnak, beraz, otsailean bost orduko ikastaroa edo barnetegiko ikastaroa egin beharko dute.

b) Urrian hasi diren ikasleek, aldiz, ikastaro trinkoa nahiz modulu aldaketa eskatu ahal izango dute otsailean, hau da, ikastaro trinkotik 2 ordukora aldatzea, edo alderantziz.

Modulu aldaketei dagokienez, oraingo deialdi honetan ezingo da autoikaskuntza ikastarorik hasi, 2 orduko moduluarekin gertatzen den bezalaxe.

Ikastaroek, betiere, HABEk homologatuak izan behar dute, eta otsailetik ekainera arteko iraupena izan behar dute.

Laugarrena.– Lanorduetako ikastaroak.

4.1.– Ikastaroen eskaintza lanorduetan.

Ebazpen honen II. eranskinean adieraziko dira deialdi honetan, lanorduetan betiere, egin daitezkeen ikastaroak.

Deialdi hau 2011-2012 ikasturteko bigarrena da, eta bertan egiten den ikastaro-eskaintza mugatua da; gorago aipatu diren 2011ko apirilaren 13ko Ebazpenean eta 2011ko apirilaren 4ko Ebazpenean iragarri bezala.

Eskabideak modulu eta ordutegi bakarrerako izan beharko dira. Horrezaz gain, HABEk homologatu behar ditu eta otsailetik ekainera arteko iraupena izan behar dute.

Otsailean ezin izango da lanorduetan autoikaskuntza ikastarorik egin.

IVAPek ondoen iritzitako egokitzapenak egin ditzake II. eranskinean zehazten diren hasiera eta bukaera egunetan nahiz ordutegietan.

4.2.– Eskabideak nola egin, lanorduetako ikastaroetarako.

4.2.1.– Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileen eskabideak.

Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileek IVAPek beren beregi prestatutako paperezko eskabidea erabili beharko dute. Inprimakia guztien eskura egongo da helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net (behin hemen, bide honi jarraitu behar zaio: euskara>euskara ikastaroak>1-2-3HE prestatzeko ikastaroak> inprimakia).

Eskatzaileak erakundeko langile-arduradunaren baimena beharko du eskaera onartua izateko. Horretarako, eskabide-orrian bertan arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua agertu beharko dira.

4.2.2.– Eusko Jaurlaritzako langileen eskabideak.

Eusko Jaurlaritzako langileek bi bide izango dituzte eskabidea egiteko: paperezkoa edo telematikoa.

a) Paperezko eskabidea: IVAPek beren beregi prestatutako inprimakia erabili beharko da. Inprimaki hori guztien eskura egongo da helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net (behin hemen, bide honi jarraitu behar zaio: euskara>euskara ikastaroak>1-2-3HE prestatzeko ikastaroak> inprimakia).

Sailean jasotako eskabideak sailean bertan grabatu eta kudeatuko dira, aplikazio informatikoaren bidez. Baimena sail bakoitzak eman edo ukatuko die eskatzaileei IVAPek horretarako adieraziko duen epean.

b) Eskabide telematikoa norberaren ordenagailutik egin ahal izango da, intraneten bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako intraneteko Jakina atarian IVAPek ezarritako helbide honetara jo beharko da: www.ivap.jakina.

Sistema hau erabili ahal izateko, eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua.

Eskabide telematikoak sail bakoitzak kudeatuko ditu aplikazio informatikoaren bidez. Baimena sail bakoitzak eman edo ukatuko die eskaerei, IVAPek horretarako adieraziko duen epean.

4.3.– Lanorduetako eskabideak IVAPen entregatzeko epeak.

● Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileen kasuan: azaroaren 30a izango da azken eguna IVAPen entregatzeko herri-erakunde bakoitzak baimendu dituen eskabideak.

● Eusko Jaurlaritzakoak diren langileen kasuan: ebazpen hau argitaratu eta 15 egun balioduneko epea izango dute eskabideak euren saileko Zerbitzu Zuzendaritzan aurkezteko, hala paperezko eskabideak, nola eskabide telematikoak.

Epe horretatik kanpo bidalitako eskabideak ez dira onartuko; eta, horretarako, eskabideak bidaltzeko ofizioaren irteera data hartuko da kontuan.

Bosgarrena.– Lanorduz kanpoko ikastaroak.

5.1.– Ikastaroen eskaintza eta baldintzak.

Lanorduz kanpoko ikastaroak eskatzeko baldintzak eta ezaugarriak deialdi honen hirugarren oinarrian ezarri dira.

Ikastaroek, betiere, HABEk homologatuak izan behar dute eta otsailetik ekainera bitarteko iraupena izan behar dute.

Otsailean ez da onartuko lanorduz kanpo autoikaskuntza egiteko eskaerarik.

5.2.– Eskabideak nola egin, lanorduz kanpoko ikastaroetarako.

5.2.1.– Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileen eskabideak lanorduz kanpoko ikastaroetarako.

Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileek IVAPek beren beregi prestatutako paperezko eskabidea erabili beharko dute. Inprimakia guztien eskura egongo da helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net (behin hemen, bide honi jarraitu behar zaio: euskara>euskara ikastaroak>1-2-3HE prestatzeko ikastaroak> inprimakia).

Eskatzaileak erakundeko langile-arduradunaren baimena beharko du eskaera onartua izateko. Horretarako, eskabide-orrian bertan arduradunaren sinadura eta erakundearen zigilua agertu beharko dira.

5.2.2.– Eusko Jaurlaritzako langileen eskabideak lanorduz kanpoko ikastaroetarako.

Eusko Jaurlaritzako langileek bi bide izango dituzte eskabidea egiteko: paperezkoa eta telematikoa.

a) Paperezko eskabidea. IVAPek beren beregi prestatutako inprimakiaren bidez egin behar da. Inprimakia guztien eskura egongo da helbide elektroniko honetan:

www.ivap.euskadi.net (behin hemen, bide honi jarraitu behar zaio: euskara>euskara ikastaroak>1-2-3HE prestatzeko ikastaroak> inprimakia).

Eskatzaileak honako helbide honetara bidali behar du eskabidea: IVAP –Euskalduntze Zerbitzua–; Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

b) Eskabide telematikoa. norberaren ordenagailutik egin ahal izango da, intraneten bidez. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako intraneteko Jakina atarian IVAPek ezarritako helbide honetara jo beharko da: www.ivap.jakina.

Sistema hau erabili ahal izateko, eskatzaileak lehenik XL-Nets segurtasuneko sistemaren bitartez identifikatu behar du bere burua.

5.3.– Lanorduz kanpoko eskabideak IVAPen entregatzeko epea.

Epea abenduaren 2tik 23ra bitartekoa izango da, bai Eusko Jaurlaritzako langileentzat, bai beste herri-erakundeetako langileentzat.

Epe horretatik kanpo bidalitako eskabideak ez dira onartuko; eta, horretarako, eskabideak bidaltzeko ofizioaren irteera data hartuko da kontuan.

5.4.– Aldi baterako langileak lanorduz kanpoko ikastaroetan.

Aldi baterako langileek egiaztatu beharko dute lan-hitzarmena dutela beren administrazioarekin, ikastaroak direnen bitartean.

Horretarako, Eusko Jaurlaritzako langileen kasuan, kontratuaren hasiera eta bukaera egunak adieraziko dituen agiria bidali beharko dute IVAPera. Agiri hori zerbitzu zuzendariak sinatu beharko du, betiere, eskabide-epe barruan.

Eusko Jaurlaritzakoak ez diren langileen kasuan, berriz, eskaera orrian bertan adierazi beharko dituzte lan-hitzarmenaren hasiera eta amaiera egunak.

5.5.– Lanorduz kanpoko ikastaroetan matrikulatzea.

Langileak egindako eskaera IVAPek aztertu eta, hala badagokio, onartu ondoren, IVAPek matrikula orria bidaliko du langilearen erakundera, honek langile bakoitzari berea helarazi diezaion.

Matrikula orriaren bitartez langilea edozein euskaltegi publiko edo pribatu homologatutan matrikulatu ahal izango da.

Matrikulatzeko ezinbestekoa izango da langileak matrikula orria euskaltegian entregatzea.

Langilea inon matrikulatzen ez bada, ahalik eta lasterren itzuli behar du bere matrikula orria IVAPera.

Langileak egin duen matrikulak honako baldintza hauek betetzen baditu, IVAPek matrikularen kostu osoa ordainduko du:

1) Matrikula orria garaiz entregatzea euskaltegian: ikastaroa hasi baino lehen aurkeztu beharko da.

2) Aurreko 5.1 oinarrian ezartzen diren ikastaroen ezaugarriak betetzea.

Langileak egin duen matrikulak aurreko baldintzak betetzen ez baditu, IVAPek ez du ordainduko. Kasu horretan, ukapenaren berri emango du langilearen erakundean.

Seigarrena.– Ikastaroen hasierari buruzko arau orokorrak.

Ikastaroa hasten den egunean bertan hasi beharko du langileak eskolan. IVAPek bertan behera utziko ditu eskolan hasi ez diren langileen eskaerak.

Moduluz aldatzen diren ikasleen kasuan, hasiera-dataren erreferentea ikastaro trinkoa izango da:

– Ikastaro trinkotik 2 ordukora aldatzen diren ikasleek lehenik eta behin ikastaro trinkoa bukatu behar dute, eta ondoren aldatuko dira 2 orduko ikastarora.

– 2 orduko ikastarotik trinkora aldatzen diren ikasleek 2 orduko ikastaroan jarraituko dute harik eta ikastaro trinkoa hasi arte.

Zazpigarrena.– Ikasleei buruzko informazioa.

Euskara ikastaroak kudeatzeko ezinbestekoa da ikasleei buruzko hainbat datu pertsonal jasotzea, tratatzea, fitxategi batean biltzea eta dagokion sailari lagatzea. Hartara, IVAPek lanorduetan nahiz lanorduz kanpo ari diren ikasleen asistentzia eta ebaluazio datuak jasoko ditu, eta erakunde bakoitzari bere ikasleei dagozkienak jakinaraziko dizkio. Halaber, IVAPek Eusko Jaurlaritzako sailen eskura jarriko ditu lanorduetako ikasleen aprobetxamenduari buruzko txostenak.

Ebazpen honen ondorioz jasoko diren datu pertsonalen tratamendua bai Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoak, bai datu pertsonalak gordetzen dituzten fitxategi automatizatuen segurtasun-neurrien Araudiak (ekainaren 11ko 994/1999 Errege-dekretuaren bidez onartutakoa) xedatutakoaren arabera egingo da.

Deialdi honetara biltzen diren langileek onartu egiten dute ebazpenaren helburua betetzeko jasoko diren datu pertsonalen tratamendua. Hori dela eta, onartu egiten dute IVAPek datuak jasotzea eta dagozkien erakundeei jakinaraztea, bai euren asistentziari eta ebaluazioari dagokienez, bai euren aprobetxamenduari buruzko txostenei dagokienez ere. Onartu egiten dute, era berean, datu-lagapenak egitea Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, txostenak egin ditzan normalkuntza planaren betetze maila ebaluatzeko (Euskal Autonomia Erkidegoko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren 6. artikulua). Onartu egiten dute, azkenik, datu-lagapenak egitea Helduen

Alfabetatze eta Berreuskalduntzeko Erakundeari –HABE– aipatutako apirilaren 15eko 86/1997 Dekretuaren seigarren xedapen gehigarrian ezarritakoaren arabera).

Ikasleei buruzko datu pertsonalak Datuak Babesteko Agentzian erregistratutako «Funtzionarioak euskalduntzea» izeneko fitxategian egongo dira. Ikasleek Fitxategiko datuetara sartzeko, eta datuok aldatu edo deuseztatzeko eskubidea erabili nahi izanez gero, IVAPeko Idazkaritza Nagusira jo dezakete: Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz.

II. ERANSKINA

LANORDUETAKO IKASTAROAK

1.– Barnetegiko ikastaroak.

Barnetegiko ikastaroak Zornotzako Aurten Bai barnetegian edo Lazkaoko Maizpide euskaltegian egin ahal izango dira ondorengo egutegien arabera:

Maizpide (Lazkao): otsailak 6 – ekainak 22.

Aurten Bai (Zornotza): otsailak 1 – ekainak 29.

Barnetegiko ikastaroen egutegia nahiz ordutegia euskaltegien eskaintzaren arabera alda daitezke.

IVAPek matrikularen eta egonaldiaren gastuak hartuko ditu bere gain.

2.– Bost orduko ikastaroak.

Euskalduntzeko nahiz alfabetatzeko ikastaroak izango dira. Modulu honek egun osoko lan-liberazioa eskatuko du; izan ere, eskola orduez gain, ikasleak lan pertsonalerako behar duen denbora ere gehitu beharko da.

Bost orduko ikastaroek lauhileko iraupena izango dute beti. Deialdi honi dagokion bost orduko ikastaroa bigarren lauhilekoan egingo da eta honako iraupena izango du:

otsailak 13 – ekainak 22 (hiru ebaluaketa egingo dira).

2011ko apirilaren 5etik 13ra arteko egunak, biak barne, ez dira eskola egunak izango.

IVAPek matrikula gastuak hartuko ditu bere gain.

3.– Modulu-aldaketak.

3.1.– Bost orduko ikastarotik bi orduko ikastarora:

Bost orduko ikastarotik IVAPeko goizeko bi orduko talde batera aldatzen diren ikasleek ondorengo egutegiak eta ordutegiak izango dituzte: otsailak 13 – ekainak 1.

IVAPeko bi orduko taldeen ordutegia 08:00-10:00 izango da, hiru hiriburuetan.

Aldiz, matrikula orriarekin eskolatzen diren ikasleek euskaltegiaren egutegia eta ordutegia jarraituko dute.

3.2.– Bi orduko ikastarotik bost orduko ikastarora:

Bi orduko ikastarotik IVAPeko bost orduko taldera aldatzen diren ikasleek eranskin honen 2. puntuan adierazitako egutegia izango dute.

Aldiz, matrikula orriarekin eskolatzen diren ikasleek euskaltegiaren egutegia eta ordutegia jarraituko dute.